

# I+Gan egindako inbertsioaren 2023rako balioespena

2023ko martxoa



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

## Aurrekariak

**Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak esleitzen dion ebaluazio-funtzioaren baitan, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak tresna estatistikoa bat garatu zuen 2019an, Euskadiko I+G inbertsioa aurretiaz balioesten duena, lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko.**

Tresna hori ondorengo erreferentziak dituen eredu estatistiko batean oinarritzen da; batetik, EAEko I+G aurrekontuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren barne-produktu gordinaren (BPG) hazkunde-aurreikuspena, eta, bestetik, aldagai horiek enpresetako I+Garekin duten korrelazioa. Aipatutako azken balioespen hori Euskadiko I+Gn trakzio gaitasuna duten 15 enpresako talde baten aurreikuspenekin doitzen da. Enpresa horiek guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziako kide dira, eta Euskadiko I+G alorreko enpresa-finantzaketaren % 40 osatzen dute. Horrez gain, edizio honetako berritasun gisa, BRTAko zentroek I+G alorreko ustiapeneko diru-sarreraren bilakaerari buruz egindako balioespenak ere hartzen dira kontuan.

Eustat, Euskal Estatistika Erakundearekin eta Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin kontrastatu genuen eredua, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eredua diseinatzen lagundu zigun. Lau ekitaldiren ondoren, balioespenen eta erregistratutako azken balioen arteko errore-marjina 2020an baino ez da izan % 3 baino handiagoa, pandemia eta energia-krisia dela-eta.

Bosgarren edizio honetan, 2023ko inbertsioa balioetsi dugu. Horretarako, 2021eko azken datu estatistikoak hartu ditugu oinarri (2022ko azaroan argitaratu zirenak) eta 2022ko balioak zenbatetsi ditugu.

## Euskadiko I+G inbertsioa % 7,2 haziko da 2023an

	2021 erreala	2022 balioetsia	2023 balioetsia
<b>I+Gn inbertsioa</b> (milioiak eurotan)	<b>1.646 M€</b>	<b>1.768 M€</b>	<b>1.895 M€</b>
<b>Urte arteko aldakuntza</b> (ehunekoa)	<b>+% 10,5</b>	<b>+% 7,3</b>	<b>+% 7,2</b>

## Enpresen eta administrazio publikoen inbertsioek bultzatuko dute I+Gren hazkundera 2023an

	GUZTIRA	Enpresak	Administrazioak	Nazioartekoa	Beste iturriak
<b>I+Gn inbertsioa 2023an</b> (milioiak eurotan)	<b>1.895 M€</b>	<b>1.049 M€</b>	<b>639 M€</b>	<b>160 M€</b>	<b>46 M€</b>
<b>Urte arteko aldakuntza</b> (ehunekoa)	<b>+% 7,2</b>	<b>+% 5,9</b>	<b>+% 7,9</b>	<b>+% 13,5</b>	<b>+% 6,5</b>

**2023an, Euskadin I+Gn egindako inbertsioa 1.895 milioi eurokoa izango da, eta % 7,2 haziko da, 2022koarekin alderatuta. Zehazki:**

- 1.049 milioi euro euskal enpresetatik etorriko dira. Enpresen inbertsioa % 5,9 haziko dela aurreikusten dugu.
- 639 milioi euro administrazio publikoetatik etorriko dira (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta Estatuko Administrazio Orokorra). Administrazio publikoen inbertsioa % 7,9 haziko da, batik bat Eusko Jaurlaritzaren ahaleginari esker; izan ere, % 12 igoko du I+Garen eta berrikuntzaren aurrekontua, eta NextGenerationEU funtsekin finantzatutako PERTE-ekin lotutako proiektuak gauzatzen hasteagatik.
- Gainontzeko inbertsioa, alde batetik, nazioarteko finantzaketatik etorriko da, Horizonte Europa esparru-programa berriari esker; eta, bestetik, beste iturri batzuetatik, hala nola unibertsitateetatik edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen dohaintzetatik etorritako funtsetatik.

Datozen orrialdeetan azalduko ditugu finantzaketa-iturri bakoitzari dagokion kalkulua egiteko erabilitako balioespenak.



## Enpresek % 5,9 igoko dute I+Gari emandako finantzaketa

Enpresek I+Gan egindako inbertsioak indartuko dituztela aurreikusten dugu, eta % 5,9 haziko direla 2023an. Horren ondorioz, inbertsioa 1.049 milioi eurokoa izango dela aurreikusten dugu. Euskadiko enpresa-finantzaketaren gehieneko historikoa litzateke hori.

	2021 erreala	2022 balioetsia	2023 balioetsia
<b>I+Gren enpresa-finantzak</b> (milioiak eurotan)	933 M€	991 M€	1.049 M€
<b>Urte arteko aldakuntza</b> (ehunekoa)	+% 14,8	+% 6,2	+% 5,9

**I+G alorreko enpresa-finantzaketa** enpresek I+Gari emandako finantzaketa da. Edozein tamaina eta sektoreko (industria, zerbitzuak, etab.) enpresak dira, gehienbat pribatuak. Bertan sartzen dira:

- Enpresek I+G alorreko barne-jarduerei ematen dizkieten barne-funtsak (langile-gastuak, etab.)
- Hirugarren erakundeak I+G zerbitzuak emateko azpikontratatzeari (kontratu bidezko I+G), hala nola teknologia-zentroak, unibertsitateak edo beste enpresak.

## 2023an, finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da, batik bat Eusko Jaurlaritzari esker

I+G alorreko finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da, eta 2023an % 7,9 haziko da. Hazkunde hori Eusko Jaurlaritzak bultzatuko du batez ere. Izan ere, % 12 igoko du I+Garen eta berrikuntzaren aurrekontua.

Era berean, I+G alorrari lotutako NextGenerationEU funtsak, batez ere Estatuko Administrazio Orokorraren bidez bideratutakoak, finantzaketa publikoaren hazkundean laguntzea espero da, PERTE-en proiektu estrategikoak gauzatzeko hasiko baitira, adibidez, Ibilgailu Elektrikoaren eta Konektatuaren PERTErenak (PERTE VEC).

	2021 erreal	2022 balioetsia	2023 balioetsia
<b>I+Gren finantzaketa publikoa</b> (milioiak eurotan)	541 M€	593 M€	639 M€
<b>Urte arteko aldakuntza</b> (ehunekoa)	+% 6,2	+% 9,5	+% 7,9

**I+G alorreko finantzaketa publikoa** honako administrazio publiko hauek I+Gari ematen dizkioten funtsak dira:

- Eusko Jaurlaritzak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila; Hezkuntza Saila; Osasun Saila; etab.).
- Estatuko Administrazio Orokorrak, NextGenerationEU funtsen zati handiena bideratuko duenak.
- Foru-aldundiek eta beste toki-administrazioek.

Funts horien barruan sartzen dira:

- I+G jarduerak egiteko enpresei, teknologia-zentroei, eta abarrei emandako dirulaguntzak;
- unibertsitateetan eta ospitale publikoetan I+Gn<sup>1</sup> lan egiten duten langileen soldata;
- administrazio publikoek I+G alorreko barne-jarduera finantzatzera bideratzen dituzten funts propioak;
- eta hirugarren erakundeak I+G zerbitzuak emateko azpikontratatzeko (kontratu bidezko I+G).

1. Irakasle-ikertzaileek eta medikuek I+Gari eskaintzen dioten dedikazioaren kostuaren zati proportzionala hartzen dugu kontuan, bai eta ikertzaileen guztirako kostua ere. • Iturria: Eustaten eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin guk geuk egindakoa.

## 2023an Nazioarteko finantzaketa berriro haziko da

2022 eta 2023an, aurreikusten dugu nazioarteko finantzaketa haziko dela, euskal erakundeek Horizonte Europa esparru-programan izandako hasiera onari esker. Proiektuak bi urte horietan hasiko dira garatzen.

Gainontzeko funtsak ere haziko dira, pandemia hasi aurreko ehunekoetara iritsi arte.

		2021 errealia	2022 balioetsia	2023 balioetsia
I+Gren nazioarteko finantzaketa	ZENBATEKOA (milioiak eurotan)	131 M€	141 M€	160 M€
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	+% 4,0	+% 7,5	+% 13,5
I+G alorrerako beste iturri batzuk	ZENBATEKOA (milioiak eurotan)	42 M€	43 M€	46 M€
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	+% 0,2	+% 3,6	+% 6,5

**I+G alorreko nazioarteko finantzaketa** publikoa (Europako Batzordea, etab.) zein pribatua (atzerriko enpresak, etab.) da, atzerriko erakundeek Euskadin egiten den I+Gari ematen diotena.

Funts horietan sartzen dira:

- nazioz gaindiko erakunde publikoek (adb., Europako Batzordeak esparru-programaren bidez) edo beste atzerriko erakunde publiko batzuek emandako dirulaguntzak, lurraldean I+G jarduerak egiteko,
- eta atzerriko erakundeek, batez ere enpresa pribatuek, I+G zerbitzuak azpikontratatzeko (kontratu bidezko I+G), lurraldean I+G jarduerak egiteko. Erakunde horiek atzerriko enpresa nagusiak izan daitezke, tokiko enpresa subsidiarioetan egiten den I+G finantzatzen dutenak.

**Beste iturri batzuetatik etorritako finantzaketan** sartzen dira goi-mailako irakaskuntzatik etorritako funtsak (funts propioak eta unibertsitate publiko eta pribatuen, horiei atxikitako ikerketa-zentroen eta goi-mailako LH zentroen berezko funtsak eta azpikontratazioak), bai eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik etorritakoak ere (hala nola fundazioen dohaintzak).

## Egindako kanpo-contrasteak


Euskadiko I+Gn trakzio gaitasuna duten taldeko 15 enpresetatik 12etan jasotako datuekin doitzen da I+G alorreko inbertsio pribatuaren balioespena. Enpresa horiek guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziako kide dira, eta Euskadiko I+G alorreko enpresa-finantzaketaren % 40 osatzen dute.



Horrez gain, edizio honetako berritasun gisa, BRTAko zentroek I+G alorreko ustiapeneko diru-sarreraren bilakaerari buruz egindako balioespenak ere hartzen dira kontuan, finantzaketa-iturri bakoitzeko.



**Enpresen I+Garen % 40**  
**Sektore-ordezkaritza handia:**  
 metala, energia, garraioa eta  
 farmazeutikoa.







**Eranskinak**

## ERANSKINAK

# Balioespen-ereduaren azalpena

Innobasqueren eredia I+Grako euskal aurrekontutik abiatzen da enpresa-finantzaketaren hazkundera balioesteko, eta, gero, Euskadiko I+G alorreko barne-gastua balioesten du urte horretan eta hurrengo urtean. Eredua egindako korrelazio- eta kausalitate-analisen emaitza da.

### EUSKO JAURLARITZAREN I+GAREN AURREKONTUA

Lehendakaritzak Eusko Jaurlaritzaren I+Garen urte horretako eta hurrengo urteko aurrekontua ematen dio Innobasqueri.



### I+G alorreko administrazio publikoen finantzaketaren hazkunderen balioespena

Administrazio publikoen finantzaketaren hazkundera balioesteko, euskal partiden hazkunderen tasa leunduaren eta barne-produktu gordinaren hazkunde-tasaren funtzioa kalkulatu dugu.



### I+G alorreko enpresa-finantzaketaren hazkunderen balioespena

Administrazio publikoen finantzaketaren hazkundera oinarrituta, enpresa-finantzaketaren hazkundera balioesten dugu.

### GUZTIZKO GASTUAREN BALIOESPENAK

#### BPGAREN GAINEKO I+G GASTUAREN BALIOESPENA


Hori kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak egiten duen barne-produktu gordin nominalaren hazkunderen balioespena hartzen dugu oinarri.

#### I+G ALORREKO BARNE-GASTUAREN BEHIN BETIKO BALIOESPENA

I+G finantzatzen duten iturri guztien hazkunderen balioespenaren baturan oinarrituta kalkulatu dugu.



**A'** + **B'** + **C**



#### Beste iturrien I+Grako finantzaketaren hazkunderen balioespena

Nazioarteko finantzaketatik, goi-mailako hezkuntzatik eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik etorritako finantzaketaren hazkundera kalkulatzeko, aurreko urteetako hazkunderen batzuetan bestekoa egiten dugu.


### FINANTZAKETA-ITURRIAREN ARABERAKO BALIOESPENAK

#### Eusko Jaurlaritzaren eta NextGenerationEUko funtsen aurrekontu-igoeran oinarritutako doikuntza



Gastu publikorako balioespenak sendotzen dira, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-igoeren eta NextGenerationEUren funtsen eraginaren analisi kuantitatibo baten bidez.

#### Enpresa-finantzaketa enpresa-talde adierazgarriekin eta BRTAko zentroen I+Gko ustiapen-diru-sarrerekin alderatzea



Enpresa-finantzaketan pisu handia duten enpresa-talde bazkideekin alderatzen da, doitzeko. Era berean, BRTAko zentroen I+Gko ustiapen-diru-sarrerak hartzen dira kontuan, finantzaketa-iturri bakoitzeko. Alderaketak finantzaketa publikoaren hazkundera modulatzeko ere balio du.



## ERANSKINAK

### Ereduaren sendotasuna

Tresna eraginkorra da eredia, eta bere baliozkotasuna frogatu du.

	2019	2020	2021
<b>Balioetsitako datua</b> (milioiak eurotan)	1.496 M€	1.543 M€	1.556 M€
<b>Benetako datua</b> (milioiak eurotan)	1.481 M€	1.490 M€	1.646 M€
<b>Balioespen-errorea</b> (ehunekoa)	+% 1,0	+% 3,6	+% 5,8



Pandemia hasi zen urtea



Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea  
Laida Bidea, 203 | 48170 Zamudio

T. +34 944 209 488 | [innobasque@innobasque.eus](mailto:innobasque@innobasque.eus)

[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)